



## **GENERO ERAGINAREN EBALUAZIOA EGIAZTATZEKO ARAUZKO TXOSTENA, GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO 2019rako AURREKONTU OROKORRAK ONARTZEN DITUEN FORU ARAUAREN AURREPROIEKTUARENA.**

---

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren eskariz egiten da txosten hau, foru arau hauek xedatutakoa betetzeko asmoz: alde batetik, *6/2005 Foru Araua, uztailaren 12koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoa* –70. artikulua–; eta bestetik, *2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa* –27. artikulua–.

Txostenaren helburua da egiaztatzea zuzen aplikatu den ala ez arau eta jarraibide hauetan xedatutakoa: *Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2/2015 Foru Arauaren 27. b) artikulua*, eta *Gipuzkoako Foru Aldundiko organoen izaera orokorreko xedapenen genero eragina aldeztetik aurretik ebaluatzeko txostenak egiteko jarraibideak, 2011ko ekainaren 21eko Diputatuen Kontseiluaren Erabakiz onartutakoak*. Orobat, helburua da zentzu horretan hobetzeko proposamenak egitea.

2018ko urriaren 24an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoari eskatu zion goian aipatutako proiektuari buruzko genero eraginaren aurre ebaluazioa egiaztatzeko txostena. Aurreproiektu horren xedea da Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2019rako aurrekontu orokorrak onartzea.

Foru arau bat da; ondorioz, *2/2015 Foru Arauaren 27.1 artikulua* ezarritakoari jarraikiz, genero eraginaren aurre ebaluazioa behar du. Eta xede horrekin, proiektua sustatu duen organoak dagokion genero eraginaren aurre ebaluazioko txostena egin du, aipatutako arauko *27.2 artikuluan* aurreikusitakoarekin bat etorriz, hain zuzen ere.



Ondorioz, Berdintasun Zerbitzuak dagokion genero eraginaren aurre ebaluazioa egiaztatzeko txostena egin du, *15/2016 Foru Dekretuak, uztailaren 19koak, Diputatu Nagusiaren Alorraren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoak*, 12. artikuluan ezarritakoaren arabera.

## EGIAZTAPENA

Genero eraginari buruz aurkeztutako aurre ebaluazioko txostenak **zuzen identifikatzen du** esku artean daukagun foru arauaren aurreproiektuaren **genero pertinentzia**, emakumeengan eta gizonengan duelako eragina; pertsona fisikoak izanik azken hartzaileak, eta gainera, eragina duelako emakumeen eta gizonen baliabideetarako irispidean edo baliabideen kontrolean.

Proiektuaren genero pertinentzia zehaztu ondoren, Gipuzkoako gizon eta emakumeen **abiapuntuko egoerari buruzko azterketa** egiten du txostenak. Horretarako, nabarmentzen du bilakaera positibo bat izan dutela Gipuzkoako gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun egoerari buruzko erreferentziazko adierazleek, nahiz eta oraindik asko falta den berdintasunezko egoera bat lortzeko. Gainera, azpimarratzen du ezen azken urteotako krisi ekonomikoak berekin ekarri duela handiagoak izatea, alde batetik, babesgabetasun egoeran dauden emakumeen eta gizonen arteko arrakala, eta bestetik, errenta apaleko mailak, zeinak eragin negatiboagoa baitu emakumeengan.

Azterketa horren ondoren, txostenak Gipuzkoako emakumeen eta gizonen errenta pertsonalari eta parte-hartze laboralari buruzko datuak ematen ditu, oinarritzat hartuz Eustateko datuak nahiz Gipuzkoako pobrezari eta gizarte bazterketari buruzko inkesta. Hortik ondorioztatzen da oraindik ere genero desberdintasunak daudela Gipuzkoako Lurralde Historikoan, gizonek eta emakumeek baliabide ekonomikoak eskuratzeari dagokionez.



Gainera, txostenak datu zehatzak jasotzen ditu bai aurrekontu programei buruz (Txosten exekutiboa: *Genero ikuspegiak 2019ko aurrekontuetan duen eraginari buruzko azterketa*) bai PFEZ<sup>1</sup> eta OHZ<sup>2</sup> araudien aldaketei buruz.

Hala, txosten exekutiboak, bestalde, foru departamentuetako 42 programa aztertzen ditu. Horietatik, 21 programak genero garrantzi altua dute, eta beste 21ek, berriz, garrantzi ertaina, aurrekontu programen sailkapen esparruan.

Horretarako, sexuen arabera bereizitako datuak ematen dira emakumeek eta gizonen jardun eremu jakin horretan duten egoerari dagokionez. Hala eta guztiz ere, eta lortutako datuetatik abiatuta, ez da egiten genero azterketarik identifikatutako desberdintasunei buruz, eta ez da txertatzen ere neurri zuzentzailerik, desberdintasun horiek konpentsatzeko, hala badagokio.

Beste alde batetik, txostena ere ez da iristen 2019ko aurrekontuei dagokien foru arauaren aurreproiektuari genero eraginaren aurre ebaluazio bat egitera. Hala, nahiz eta baieztatzen den ezen 2019ko aurrekontuek baldintzak eta neurriak jartzen dituztela genero desberdintasunak gutxitzeko, ez dira jasotzen konklusio horretara eramaten duten arrazoiak.

Azkenik, eta PFEZ eta OHZ araudietan proposatutako aldaketei dagokienez, horiek ere txertatzen baititu aurreproiektuak, arautze eremuan dauden desberdintasunak identifikatzen ditu proposamenak, baina ez du sartzen funtsezko aldaketarik, araudi horiek aldatzeko lagungarria izan daitekeenik.

---

<sup>1</sup> Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga

<sup>2</sup> Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga



## ONDORIOA ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Azaldutako guztiaren arabera, eta *2/2015 Foru Arauak, martxoaren 9koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 27.2.b)* artikuluan dioena betez, *Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen Foru Arauaren aurreproiektua* sustatu duen departamentuak **partzialki ezarri du 2/2015 Foru Arauak 27. artikuluan xedatutako prozedura.**

Hori hala da, zeren eta, alde batetik, aurreproiektuaren genero pertinentzia identifikatzen baita, eta emakumeek eta gizonek jardun eremu horretan duten egoeraren diagnostiko bat egiten baita, baina, bestetik, ez baita egiten genero eraginaren aurre ebaluazio bat, eta ez baita txertatzen berdintasunaren aldeko neurri zuzentzaileak, hala badagokio.

Izan ere, hala ezartzen baitute *Gipuzkoako Foru Aldundiko organoen izaera orokorreko xedapenen genero eragina alde aurretik ebaluatzeko txostenak egiteko jarraibideek, 2011ko ekainaren 21eko* Diputatuen Kontseiluaren Erabakiz onartutakoek, urrats hauek egin behar dira Arauaren genero eraginaren balorazioa egiteko, eta eragin positiboa izango duela bermatzeko:

- ✓ Programa bakoitzeko datu bilketa, sexuen arabera berezita.
- ✓ Lortutako datuen azterketa eta desberdintasunen identifikazioa.
- ✓ Desberdintasun horien aurrean Arauak duen erantzun maila.
- ✓ Genero eraginaren balorazioa.
- ✓ Identifikatutako desberdintasunak konpentsatzeko aurreikusten diren neurri zuzentzaileak.



Aztertutako aurrekontu programen kasuan, txostenak sexuen arabera bereizita agertzen ditu programa bakoitzari dagozkion datuak eta zenbatekoak, baina ez ditu generoaren ikuspegitik aztertzen identifikatutako desberdintasunak. Aztertu egin beharko litzateke zer-nolako ondorioak izango dituzten datu eta zenbateko horiek guztiek emakumeen eta gizonen egoeraren gainean eta berdintasunaren gainean, kontuan hartuta batzuen eta besteen genero jarrera eta rol sozial desberdinak, baita identifikatutako desberdintasunak sortzeko eta mantentzeko lagungarriak diren gizarte balioak eta ohiturak ere.

Jarraian, aztertu beharko litzateke identifikatutako desberdintasunei zenbateraino erantzuten dien aurreproiektuak, eta gero, haren aldez aurreko genero eragina ebaluatuko litzateke, kontuan hartuta proiektuaren eraldaketa-gaitasuna.

Azterketa hori egin ondoren, eta eragin negatiboa aurreikusiko litzatekeen programen kasuetan, berdintasunaren aldeko neurri zuzentzaile zehatzak identifikatu beharko lirateke. Horrela, aurrekontu programei buruz egindako azterketak alderdi hauek txertatu beharko lituzke, hala badagokio: lortu beharreko berdintasun helburuak, horiek lortzeko jarduketak, eta horretarako 2019an aurreikusita dagoen aurrekontua.

Konklusio gisa, eta 2018ko ekitaldiko egiaztapen txostenak adierazi zuen bezala, egindako azterketa ez da nahikoa Arauaren genero eragina ebaluatzeko; beraz, azterketa osatu egin beharko litzateke, ezarritako prozedurari jarraituz.

Beste alde batetik, PFEZ eta OHZ araudietako aldaketei dagokienez, aipatu behar da ezen, OHZren kasuan, eta aurkezten diren datuen arabera, gizonek ondasun higiezin jabetza handiagoa kontzentratzen dutela emakumeek baino, % 3,6 gehiago, zehazki. Ondasun higiezin kopurua ez ezik, haien katastro balioa ere % 6,8 handiagoa da gizonentzat; hortaz, ondasun higiezin gehiago kontzentratzeaz gain, balio handiagoa dute horiek.



Katastro balioen eguneratze linealak abiapuntuko desberdintasun egoera hori mantentzen du. Hala ere, eta karga-tasa eguneratzea udal eskumen bat denez gero, ulertzen da ez dagoela jarduteko marjinarik berdintasuna sustatzeko, txosten honek xedetzat duen xedapenaren esparruan.

PFEZri dagokionez, eta ematen diren datuen arabera, gizonek zerga-bilketaren jaitiera osoaren % 65 kontzentratzen dute. Gainera, gizonak % 83,6an baliatzen dira batera tributatzegatik aplikatzen den kenkariaz (eguneratzearen aurretik baino % 3,2 gehiago), eta % 96,4an, berriz, ondorengoei urtaldika ordaintzegatik aplikatzen den kenkariaz (eguneratzearen aurretik baino % 2,9 gehiago). Hitz batean, datuek agertzen dutenez, aberastasunaren banaketa desberdina da emakumeen eta gizonen artean, gizonen alde, eta gainera, aldaketa horrek dagoen arrakala areagotzen du. Horregatik, ondorioztatu daiteke neurri jakin horren genero eragina negatiboa dela.


Horrenbestez, azken kasu horretan, beharrezkoa izango litzateke zenbait neurri zuzentzaile ezartzea, eragin hori neutralizatu eta berdintasuna sustatuko dutenak. Hala, adibidez, karga-tasak eguneratu egin litezke; hartara, murrizketen eta kenkarien kontzentrazio handiagoa gizonei ez egokitzeko, eta 2017. urtearekiko dagoen abiapuntuko desberdintasuna ez handitzeko. Gainera, aztertu egin beharko litzateke nola laguntzen duten egitura sexistak sendotzen gizonek kontzentratzen dituztemurrizketek eta kenkariak, hala nola batera tributatzegatik aplikatzen den murrizketa, eta mantenu pentsioengatik aplikatzen den kenkaria, haiek aldatzeari edo ezabatzeari ekiteko, hala badagokio.





Bukatzeko, eta aurreko aldaketak aztertzen diren bezalaxe, aztertu egin beharko litzateke kasu hau: “Gipuzkoako Lurralde Historikoko udal korporazioetako kideen ordainsarien goi muga ezarpena”, zeina jasota baitago, era berean, txosten honek xedetzat duen foru arauaren aurreproiektuan. Izan ere, kontuan hartuta ezen udal korporazioetako karguek sexuan oinarrituta duten banaketa aldatu egiten dela udalerriko biztanle kopuruaren arabera, emakume gutxiago kontzentratuz tamaina handiagoko udalerrietako zinegotzitzetan eta alkatetzetan, berariaz aztertu beharko litzateke kasu hori, baita aurreko aldaketak ere<sup>3</sup>.

Azkenik, **hizkuntzaren erabilera ez sexistari dagokionez**, testuaren gaztelaniazko bertsioan, ikusten da ahalegin bat egin dela hizkuntza inklusiboa erabiltzeko.

En San Sebastián, a 29 de octubre de 2018

  
Hiart Balziskueta Flórez  
Berdintasun teknikaria



  
Ana Agirre Sáez de Eguilaz  
O.E. Berdintasun zerbitzburua

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako organoa